

# KABIA TEATRO

# lavinia

Eneidaren *spin-off*-a, Ursula K. Le Guinen lanean oinarrituta  
Un *spin-off* de La Eneida, basado en Ursula K. Le Guin

Moldaketa eta dramaturgia/Adaptación y Dramaturgia: **Juana Lor eta Javier Liñera** Zuzendaritza artistikoa/Dirección Artística: **Juana Lor**  
Zuzendaritza musikala/Dirección Musical: **Bettina Aragón Hillemann**

Antzezleak/Intérpretes: **Yolanda Bustillo, Aitor Guisasola, Amets Ibarra, Karmele Larrínaga, Javier Liñera eta Iñaki Urrutia**  
Soinu-espazioaren sorkuntza/Creación Espacio Sonoro: **Itziar Madariaga** Jantzien diseinua/Diseño de Vestuario: **Betitxe Saitua**  
Argiztapenaren diseinua/Diseño de Iluminación: **David Alcorta (A.A.I.)**

Zuzendaritza-laguntza/Ayudantía de Dirección: **Raira Rosenkjar** Ahots-lanketa/Coach Vocal: **Juan Carlos Garaizabal**  
Euskarazko bertsioa eta hizkuntza-lanketa/Coach y Traducción Euskera: **Idoia Barrondo**

Kartela/Cartel: **Oskar Luko Argazkia**/Fotografía: **Asier Corera** Ekoizpena/Producción: **Kabia Teatro**  
Banaketa/Distribución: **Kabia Teatro eta Nuria Hernando**



# SINOPSISIA

Lavinia hezur eta mamizkoa da. Bizi da, arnasa hartzen du eta hitz egiten du, guk bezalaxe. Baina, kontua da poeta batek “idatzi egin” zuela. Izan ere, gizateriaren obra gailenetako baten bigarren mailako pertsonaia bat da, eta antzeztokian hitza hartu eta istorioaren bere bertsioa kontatzea erabaki du. Txanponaren aurkia, agerikoa, Eneas heroi aparta izan bada beti, guk, orain, binperra aurkeztuko dugu, ilargiaren alde ezkutua, alegia. Nahi duena eraso gabe, bultzatu gabe eta zapaldu gabe lortzen duen pertsonaia xalo eta indartsu baten eskutik ibiltzeko gonbit egiten dizuegu.

Intriga, misterioa, maitasuna, gerra, estrategia eta natura ditu hizpide istorioak, eta liskarra, ez-egitetik. Emakume azkarra eta patxadatsua da, inguruko botereak menderatzea lortu duena. Gazteak bere sekretua kontatuko digu, bere existentzia aldarrikatuta, azkenean, zuongana iristeko, poeta baten, idazle baten eta bi antzerkigileren eskuetatik igaro behar izan bada ere.





# ZUZENDARITZAREN OHARRAK

LAVINIA ipuin bat da. Eta ipuin gisa partekatuko dugu ikusleekin. Ikusleentzako zuzeneko ahozko kontakizuna da, antzerki-uneekin apaindurikoa, non laugarren pareta ixten den, pertsonaien arteko ekintzari bide emateko.

LAVINIA kantu bat ere bada. Mediterraneoko doinu polifonikoak berreskuratu ditugu, eta antzezleek zuzenean abestuko dituzte, ahozko hitzarekin nahasita. Behinolako garaiak geureganatzeko modua da, belarrien gozamenerako.

LAVINIA base elektronikoa ere bada. Izan ere, elementu horrek orainaldian kokatu du istorioa eta gerora hurbiltzen laguntzen digu.

LAVINIAK iragana, oraina eta etorkizuna elkarrekin lotzen ditu 6 antzezleen gorputz eta ahotsetan, ipuinaren (gaur), kantu polifonikoen (atzo) eta base elektronikoen (bihar) bitartez.

# DRAMATURGIAREN OHARRAK

Nola kontatu antzinako istorio hau, egiatan berria dena?

Nola kontatu zehaztasunez aldi berean behinolako garaiak eta egungoak? Nola antzeztu XXI. mendeko fantasiako liburuen buru gailenetako batek idatzi zuen eleberria? Úrsula K. LeGuinen LAVINIAREN egitura, itxuraz, erraza da, baina hori irudikeria hutsa da.

Nork “kontatzen gaitu”? Zergatik existitzen gara? Etorkizuna iragar al daiteke? Lerro hauek irakurtzen ari zara orain norbait “zu idazten” ari delako? Ziur al zaude pertsona zarela, ez pertsonaia?

Nork erabakitzen du nork hitz egiten duen eta nork ez? Zergatik kontatu da istorioaren zati bat eta ez bestea? Hori konpontzerik al dago?

Galdera horiek egin dizkiot nire buruari antzinako mito grekoak egungo ikusleei hurbilduko dizkion istorio honen dramaturgia egitean. Luze pentsatzen dut Iliada, Odisea edo Eneida izenburuen aurrean larrituta senti daitezkeen gazteengan, eta hain gazte ez direnengan. Zinez uste dut Antzerkia tresna guztiz baliagarria dela beldur hori kentzeko eta arbasoak ezagutzeko. Sinetsita nago badagoela asaben istorioen haria ez galtzeko modu bat, egungo etikarekin bat datozen hari-zuntzak josten. Lavinia horren saio bat da. Lortu izana espero dugu.



# FITXA ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

**Moldaketa eta Dramaturgia:** Juana Lor eta Javier Liñera

**Zuzendaritza Artistikoa:** Juana Lor

**Zuzendaritza Musikala:** Bettina Aragón Hillemann

**Antzezleak:** Yolanda Bustillo, Aitor Guisasola, Amets Ibarra, Karmele Larrínaga, Javier Liñera, Iñaki Urrutia

**Soinu-giroa:** Itziar Madariaga

**Jantzien diseinua:** Betitxe Saitua

**Argiztapenaren diseinua:** David Alkorta (A.A.I.)

**Zuzendaritza-laguntza:** Raira Rosenkratz

**Ahots-lanketa:** Juan Carlos Garaizabal

**Euskarazko bertsioa eta hizkuntza-lanketa:** Idoia Barrondo

**Kartela:** Oskar Luko

**Argazkiak:** Asier Corera **Ekoizpena:** Kabia Teatro

**Banaketa:** Kabia Teatro & Nuria Hernando

**Laguntzailea:** Arriaga Antzokia

# JUANA LOR

ZUZENDARITZA ETA DRAMATURGIA



Antzerki-munduko emakumea, antzezlea, pedagogo, itzultzailea eta zuzendaria. Antzezle onenaren saria lortu zuen Indifest Jaialdian, "Arquetipos de Mujer" pertsonaia bakarreko antzezlanagatik, eta bi Ercilla Sari, KABIA TEATRO antzerki-konpainiarekin; izan ere, horren sortzailekidea da.

Antzezle, Kabiako ikuskizun hauetan: "Paisaje con Argonautas", "Decir Lluvia y Que Lluvea", "Rojo al Agua" eta "Alicia después de Alicia".

Eta, Javier Liñeraren zuzendaritzapean, hauetan: "Rusia" eta "Tratando de hacer una obra que cambie el mundo". Felipe Lozaren zuzendaritzapean, "Sabias Ellas" antzezlanean, eta Ramón Barearen zuzendaritzapean, "Las Raíces Cortadas" eta "Orquesta de Señoritas" antzezlanetan. Bere-berea duen "Arquetipos de Mujer: Una Búsqueda" lanarekin biran jarraitzen du.

"La Mejor Madre del Mundo" estreinatu du zuzendari eta moldatzaile lanetan. Juan Carlos Garaizabalen "No más boleros, Gracias" pieza musikala zuzendu du. "Una Penélope Cualquiera" eta "Una última entrevista" antzerki laburrak zuzendu ditu, baita AlanbikeTeatroren In Perpetuum Mobile eta Sal Marina ere.

Antzerki-tailerrez arduratzen da, 2008. urteaz geroztik, Bilboko Kabia Workshop-ean eta Pabellón 6ko Gazte Konpainian, Grenoble Alpes Unibertsitatean (Frantzia), Cuenca a Escena Jardunaldi Nazionaletan eta Europako Antzerki Jaialdian, Libanon. Ikastaroak eman ditu Basque Culinary Center eta Deustuko Unibertsitatearen Gastronomía Zientziak Masterrean.

Prestakuntza joriduna: Suzuki y Viewpoints, SITI Company-ren eskutik; Co-Ordination, Canto de la Cabrarekin (Polonia); Gorputz-entrenamendua, hauekin: Borja Ruiz, Cristina Samaniego, Enrique Pardo, Ricardo Iniesta, Silvia Garzón eta Igor de Cuadra. Orixá entrenamendua, Augusto Omulú-Odin Teatret-en eskutik. Kantu lirikoa, Maria Montesekin; Bertsoa, Karmele Aranbururekin; Testu-lana, Will Keen eta Vicente Leónekin; Ahots-lana, Juan Carlos Garaizabal, Yolanda Bustillo, Pere Sais eta Linda Wiserekin.

# BETTINA ARAGÓN

ZUZENDARITZA MUSIHALA



Oso gogoko ditu ahotsa, kantu polifonikoa eta hezkuntza somatikoa.

Valentziako Escuela de Formación Teatral Estudio Dramático-ko Ahots zuzendaria. Donostian Ahots Mugimenduaren tailerrak ematen ditu.

Bilbao Voz Project plataformaren sortzailekidea da. Kirkit Ensemble emakumezkoen a capella taldea sortu, zuzendu eta horretan abesten du.

Donostiako Emakumeen Etxeko Ederlezi Abesbatzaren zuzendaria da. Mediterraneoko, Europako Ekialdeko eta Euskal Herriko polifonietan espezializatutako Arian ensemble a capella taldea sortu, zuzendu eta horretan abesten du.

Feldenkrais metodoan hezia, Instituto Feldenkrais-en eskutik. Gaur egun, eskolak eta tailerrak ematen ditu Feldenkrais metodoa ahotsaren pedagogiara egokitzen.



# ITZIAR MADARIAGA

SOINU-GIROA

Hainbat arte-eremutan, grabazioan, kantuan, soinu-espazioan, ekoizpenean eta konposizioan espezializatutako musikaria da.

2004tik gaur arte, jatorrizko konposizio ugari sortu ditu dantza, antzerki, dokumental eta inprobisazioko eszena garaikiderako.

Besteak beste, hauekin konposatu eta kolaboratu du: Compañía Organik, Matxalen Bilbao, Beatriz Gazquez, Olatz de Andrés, Blanca Arrieta, Mabi Revuelta, Pabellón6 eta Leire Llano.

Halaber, bere performanceak, konposizio, soinua eta mugimendua, egiten ditu, baita instalazioak ere.

Gaur egun, inprobisazioan soinu-giroak sortzeaz ikertzen du.



# AMETS IBARRA

ANTZEZLEA

DANTZERTI-Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi-mailako Eskolan prestatu da, hain zuzen, gradu titulua du Arte Dramatikoan.

Bere jardunbidean zehar, antzezpen- eta dantza-eskola askotan hezi da: BAI, Artebi, Dantza Eskola eta Kabia. Halaber, artista hauen eskutik ere: Ander Lipus, Matxalen de Pedro, Andoni Aresti, Juana Lor, Borja Ruiz, Pablo Messiez...

Felipe Lozak idatzi eta zuzendutako eta Pabellón 6k ekoiztutako "Sabias Ellas" antzezlanean aritu zen zuzendaritza-laguntzaile, 2019an. Marie de Jongh konpainian antzezlehasi zen 2020an, "Ikimilikiliklik" antzezlanean eskutik; 2020ko FETEN Azokan saritu zen antzezlana. Halaber, konpainia horren "AMA" ekoizpen-lan berriaren antzezleetako bat da. Proiektu ugaritan dihardu: antzezle, Ines Arestik idatzi eta zuzendutako "Firmado por alguien que no tiene firma" antzezlanean, eta zuzendaritza-laguntzaile, Ana García Peñak idatzi eta zuzendutako "Aquel lugar de nuestra infancia" lanean antzerki-lanean.

La Higuera antzerki-konpainiaren sortzailekidea da.

# YOLANDA BUSTILLO

ANTZEZLEA

Antzerki eta Arte Eszenikoetan graduondokoa, UPV/ EHUren eskutik.

Antzezle eta abeslari lan egin du ikuskizun ugaritan, 1990ean lanbideari ekin zionetik.

Kabia Teatro antzerki-konpainiaren sortzailekidea. 2006. urtetik hona, ikuskizun hauetan antzezle jardun du: "Alas/Hegoak", "Alicia después de Alicia", "El árbol de Hiroshima", "Rojo al agua" eta "Decir lluvia y que llueva".

Arte Eszenikoetan, profesional hauekin hezia da: Mario Biagini, Workcenter of Jerzy Grotowski-ko Open Program-ekoa, Thomas Richards, Eugenio Barba eta Odin Teatret-eko antzezleak, besteak beste.

2013tik 2019ra bitartean, irakasle jardun du Kabiaren hastapen-ikastaroetan, Eszenarako Ahots eta Kantu ikastaro trinkoan eta Kabia Teatrotako Workshop-ean.



# KARMELE LARRINAGA

## ANTZEZLEA

Ohiko antzezle, antzerkian, antzerki musikalean zineman eta telebistan. Abeslari lirikoa.

Antzezlan ugaritan lan egin du: "La mejor madre del mundo" (Juana Lor, zuz.), "2021 Dido y Eneas" (Barbora Horakova Joly, zuz.), "Deskontrolatuta?" (Itziar Ituño, zuz.), "Obabakoak" (Calixto Bieito, zuz.), "El sueño de una noche de verano" (Pablo Viar, zuz.), "Chichinabo Cabaret" eta "Cabaret Chihuahua" (musikala, Felipe Loza, zuz.), "La viuda alegre" (Emilio Sagi, zuz.), "Presidente Andreak" eta "La venganza del bandido Nico Foliato" (Nexo teatro).

Zinema eta telebistako lan nabarmenak: "Una ventana al mar" (Miguel Ángel Jiménez, zuz.), "La higuera de los bastardos" (Ana Murugarren, zuz.), "Tres mentiras" (Ana Murugarren, zuz.), baita ETB1eko "Goazen", "Eskamak kentzen", "Goenkale" eta "Bagoaz" telesailak. Antzezpen eta kantuko prestakuntza bereganatu du profesional gailen eskutik: Javier Hernández Simón, Laia Ricart, Ramón Barea, Itziar Lazkano eta Pablo Ibarluzea, besteak beste.

# JAVIER LIÑERA

## ANTZEZLEA

Arte Dramatikoan diplomaduna, Getxoko Antzerki Eskolaren eskutik (ETG).

Mugimendua eta Dantza ikasi ditu Odin Teatret eta SITI company-ren eskutik.

Simulacro Teatro antzerki-konpainiako kidea, 2000tik 2013ra bitartean. 2003an Antzerki Lan onenaren Ercilla Saria lortu zuen.

2015ean, bere piezak ekoizten hasi zen: "Sucidio en 15 minutos", Javier Liñerak idatzia eta zuzendua; "Barro Rojo", Javier Liñerak idatzia eta Linda Wisek eta Daniela Molinak zuzendua.

2017an, Egile Berri Onenaren Max Sarirako izendatu zuten. 2019an, Egile Berri Onenaren Max Sarirako izendatu zuten, "¿Qué fue de Ana García?" antzezlanagatik.

Espainiako Egileen Elkartearen Jesús Campos Saria irabazi du.

# IÑAKI URRUTIA

ANTZEZLEA

Aktorea antzerkian, zineman eta telebistan, baita rapsoda ere.

Bere lan eszeniko nabarmenak: "Madre Coraje" (Arriaga Antzokia, 2020), "Yo soy Pichichi" (Pabellón 6, 2018-2019), "Cartas para Chejov" (Campos Antzokia, 2017), "El Convite de Don Juan Tenorio" (Pabellón 6) eta "Planteamiento, nudo y desenlace" (2015). Maria Goiricelaya, Patxo Tellería, Karmele Aramburu edo David Caiña egileen zuzendaritzapean antzeztu du.

Poesian berezitua. Rapsoda lan egin du hainbatetan, poeta hauen poesiak errezitatu dituela: Benedetti, Neruda, Gil de Biedma, Machado, Blas de Otero, Miguel Hernández, Lorca edo Gloria Fuertes.

Sari ugari aintzat hartu diote antzezle lana: Aktore Onenaren Rosa Aguirre Saria, Getxoko Antzerki Jardunaldietan; Aktore Onenaren Saria, Midland Texasko (AEB) Nazioarteko Jaialdian, eta Aktore Onenaren Saria, Pabellón 6ko Antzerki Laburreko Jardunaldietan.

Halaber, hiru urtez jarraian, Rapsoda Onenaren Poesia Lira irabazi du AAV Poesia Jaialdian.

# AITOR GUISASOLA

ANTZEZLEA

Hauek ditu lan eszeniko nabarmenak: "Horacios y Curiacios" eta "Rebelión", Alopargo Teatroaren eskutik; "Expediente 312" eta Shakespearearen pasarteak, "Gau Zurirako", Gaitzerdi Teatrokekin. Eta "Zu zara zarataaa...", Isladak, Komediak oroimenean, Bihotz txatalak, Zelukristaloideak eta Logikomitoak, Taupada Antzerki Taldearekin.

Antzezle hezi da, profesional hauen eskutik: Pablo Ibarluzea, Cía Blanco Roto de la mano, Laia Ricart, Oskar Luko, Gemma Sangerman eta Roberto Romei. Kabia Teatron, Borja Ruizen eskutik. Antzerki musikalean, Itziar Lazcano, Maitane Zalduegi eta Gurutze Beitiaren eskutik.

Halaber, hainbat urtez Itxaropena abesbatzan parte hartu du; hasieran, ahots zuri eta soprano gisa, eta, ondoren, kontralto, tenor eta, azkenean, baritono gisa.





# BETITXE SAITUA

JANTZIEN DISEINUA

Moda-disenatzailea eta jantzi eszenikoen diseinugilea.

Arte Ederretan lizentziaduna, UPV- EHUren eskutik, eta Artearen Historian, UNEDen eskutik. Hezkuntza Masterra egin zuen Alfonso X el Sabio Unibertsitatean (Madril). Londresko Central Saint Martins-en gazte diseinatzaileentzako hainbat prestakuntza-programatan parte hartu du.

Londresera joan zen Catherine Kodicekek zuzenduriko Young Vic Theatre-ren jantziteria-sailean lan egitera. 2018an, bere kreaioak Getariako Cristobal Balenciaga Museoan erakusteko hautatu zuten.

2019an, goi-mailako jantzigintzako "Ikusgai/Visible" bilduma aurkeztu zuen, "La Encartada Moda. Moda eta Tradizio Garaikidearen Topaketak" zirelakoetan, eta Bilboko Euskal Museoan desfilatu zuen, Fashion Kultur Bilbao programazioaren barruan.

Gaur egun, antzerki, dantza eta operarako jantziak diseinatzen dihardu.

# DAVID ALKORTA

ARGIZTAPENAREN DISEINUA



Argiztapen Diseinuan eta Ikuskizun Tekniketan tituluduna, Londresko Unibertsitateko Royal Central School of Speech and Drama-ren eskutik eta Bartzelonako Institut del Teatre-ren eskutik, hurrenez hurren.

Bere jardunbide oparoan zehar, 70 argiztapen-diseinu baino gehiago egin ditu. Antzezlan hauetan egindakoak, nabarmenenak: "El Viaje a Ninguna Parte" (Arriaga Antzokia), "Fadoak Abesten zituen Gizona" (XAKE Producciones), "Madre Coraje" (Arriaga Antzokia), "Uniko, Príncipe Destronado" (Teatro Paraíso), "Otsoa" (Larrua Proiektua), "Serenity Suite" (Matxalen Bilbao), "El Sueño de una Noche de Verano" (Tantakka / Donostia, 2016) eta "Jezdci" (Lenka Vagnerová).

Argiztapen Onenaren Max Sarirako izendatu da, hainbat aldiz. Argiztapenaren Michael Norton Bursay Bigarren Saria irabazi zuen "The Runners" ikuskizunagatik.



# JUAN CARLOS GARAIZABAL

AHOTS-LANHETA

Arte Dramatikoan diplomaduna. Aktore lan egiten du. Ahotsean sakondu du; izan ere, Logopedia ikasi zuen eta, ondoren, Voice Movement Therapy, Londresen.

Analisi Bioenergetikoan hezia da, psikoterapia psikosomatiko modalitatean, hain zuzen, eta TREN (Trauma Releasing Exercises).

Ahots entrenatzailea eta aholkularia, konpainia hauen hainbat antzerki-muntaketatan: UR Teatro, Minskeko Gazte Konpainia, 90 Unicornios eta Kabia, besteak beste. Vocal Performer, Dan-Te, Dance Across Borders eta Bilbao Voz Project prestakuntza.

Euskadiko antzerki-ikastegietako Adierazpen eta Ahots Teknika arloko, EHUko Arte Eszenikoetako Masterreko eta Estatuko Musikoterapiako unibertsitate-programetako arduraduna izan da. Espainian TRE© prestakuntzaren ezarpena antolatu du. Gaur egun, No más boleros, gracias. "Un cantocuento de vida" pieza didaktikoaren egilea eta performer-a da.

# IDOIA IBARRONDO

EUSKARAZKO BERTSIOA



Itzultzailea eta idazlea, antzezlanen hizkuntza-lanketan ere ari izaten da.

Pabellón 6ko Gazte Konpainiaren antzezlan hauen euskarazko bertsioak egin ditu: "Zer gertatu ote zitzaion Ana Garciari?" (Javier Liñera), "Ubu, Finantzen Errege" (Alfred Jarry, Raúl Quirós Molinaren bertsioa, Ramón Barearen zuzendaritzapean) eta "Komedia Madarikatua" (Tomás Afán Muñoz). Halaber, Beatriz Velillaren "Kontatu" antzelana euskaraz eman du, baita Javier Liñerarek Euripidesen "Bakanteak" lanaz egindako bertsio librearen "Animales Salvajes" en pasarte batzuk ere. Dennis Kellyren "Love & Money" antzezlanaren moldatu du ingelesetik. Literatura-sari ugari jaso ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzitako kontakizunengatik.





# KABIA TEATRO

EKOIZPENA ETA BANAKETA

2006an sortu ginen, ikerketarako espazio gisa, eskarmentu handiko Gaitzerdi Teatro konpainiaren baitan; 2013. urteaz geroztik, geure kabuz ibiltzeari ekin genion.

Hasierako garaietako bultzada eta lan-arloak berberak dira: entrenamendua, ikerketa eta etengabeko prestakuntzako toki gisa; taldea, haztegi gisa, eta sortze-prozesu luzeak eta arte eszenikoko maisu gailenekiko harremana, ezinbesteko bizigarri gisa.

Gure kreaioetan eszenaratzearen alderdi guztiak zaintzen saiatzen gara, eta harreman organiko, bizia eta ez-hierarkikoa sortzen dugu objektuen, testuaren, musikaren, aktoreen ekintzaren eta argiztapenaren artean. Horren ondorioz, ohikoak ez diren dramaturgietan, poetika bisualean, aktoreen fisikalitatean eta zuzeneko kantuan eragina duten sorkuntzak sortzen dira. Urteotan, hamaika ikuskizun sortu ditugu: "Paisaje con argonautas" (2008), "Decir Lluvia y que llueva" (2010), "Rojo al agua" (2012), "Itzala" (2013), "La noche árabe" (2015), "El árbol de Hiroshima" (2016), "Duermevela" (2017), "Alicia después de Alicia" (2017), "El alimento de las moscas" (2021), "Alas/Hegoak" (2021) eta "El sabor del melocotón" (2022).

2022an, Pabellón 6ko Antzerki Laburreko IX. Jardunaldietan Emakumezko Antzezle Onenaren Saria irabazi genuen "El sabor del melocotón" antzezlan laburreratik, eta Arte Eszenikoen XXV. Max Sarietan hautatu gintuzten "El alimento de las moscas" laneratik, kategoria hauetan: Ikuskizun Onena, Ekoizpen Onena, Egile Onena (Eusebio Calonge), Aktore Onena (Arnau Marín) eta Zuzendari Onena (Borja Ruiz). 2017an, Euskal Antzerki Ekoizpen Onenaren Ercilla Saria eman ziguten, eta Autor Exprés Saria irabazi genuen "Alicia después de Alicia" antzezlaneratik.

2015ean, Certamen Nacional de Teatro GARNACHA DE HARO Lehiaketan Muntaketa Eszeniko Onenaren Saria eman ziguten "La noche árabe" antzezlaneratik (KABIA, HIKA Teatroa eta Pabellón 6en koprodukzioa).

2010ean, Euskal Antzerki Ekoizpen Onenaren Ercilla Saria eman ziguten, Larruz Escena siglo 21 Ikuskizun Berriaren Saria eta II Certamende Nuevos Investigadores Teatrales CENIT 2012 Lehiaketaren Saria. Halaber, Euskadiko Ikuskizun Berri Onenaren sarirako finalistak izan ginen Arte Eszenikoen XIV. Max Sariatari, "Decir lluvia y que llueva" ikuskizunagatik.

Gure lanak Euskadi barruan ez ezik, hortik kanpo ere erakutsi ditugu, eta herrialde hauetako eszenatokietan antzeztu: Espainia, Italia, Frantzia, Portugal, Brasil, Argentina edo Ameriketako Estatu Batuak. Horietan, entzute handiko jaialdietan parte hartzeaz gain, ikastaroak eta hitzaldiak eman ditugu, erakustaldiak egin ditugu eta hainbat ikerketa-mintzaldi eta jardunalditan parte hartu dugu.



"PAISAJE CON ARGONAUTAS" (2008)



"DECIR LLUVIA Y QUE LLUEVA" (2010)



"ROJO AL AGUA" (2012)



"ITZALA" (2013)



"LA NOCHE ÁRABE" (2015)



"EL ÁRBOL DE HIROSHIMA" (2016)



"DUERMEVELA" (2017)



"ALICIA DESPUÉS DE ALICIA" (2017)



"EL ALIMENTO DE LAS MOSCAS" (2021)



"ALAS/HEGOAK" (2021)



"EL SABOR DEL MELOCOTÓN" (2022)



## EKOIZLEA



LUIS IRUARRIZAGA KALEA, 7 - 48003 BILBAO  
TEL: 656 727 946  
WWW.KABIATEATRO.EUS

## BANAKETA

YOLANDA BUSTILLO  
TEL: 656 727 946  
KABIA-TEATRO@KABIA-TEATRO.COM

